

EUSKAL HERRI ALA EUZKADIKO SEINORIO

ALEGIA, midikuaren bildur diren, gaisoari zer egin bada- kite, baina zerbait egin behar- rean daudela uste dutenean, gaisoa oso larri dabilela, enplasturen bat ezartzen diote.

Horixe dira Estatutuak: enplas- tuak. Gaitzari sustraiki bilatu eta oke- rra sustraletan erremediatur ordez, mi- naka piska bat arintzeko asmatu diren enplastuak. Sendatu, ez dute gaisoa e- giten; baina engainatu bai batzutan.

Guk nahi duguna, ez dira Estatu- tuak, besterik ezinean Estatutuak nahi baditugu ere, lehenengo kon- kista bezala.

Bi burubide kontrario dago emen elkarren buruz-buru: baten oinarri da, Euskadi nazio dela eta, nazio gisa, bere buruaren jabetasun osoa dago- kiola, beste edozein nazioari bezalaxe. Bere buruaren jaun eta nagusi izanez, berak ikusi behar duela, nola antolat- u beste nazioekin harremanak. Beste ikuspidearentzat "Espainia" da nazioa, nazio bakarra: hots, sobe- raniari jabe bakarra. Euskaldunak edo katalanak "minoriak" dira, jituak edo Jehovaren lekukoak edo homo- sexualak izan litezkeen moduan. Mi- noriziatu Estatu modernuek "arau partikularrak" eman ohi dituzte. Era berean, Euskadiren edo Kataluniaren arazoa "regionalismo" arazo hutsa da; "bereriztasunen" batzen arazo. Eta hori kontzesio batzekin konpontzen da. Estatutuak, alegia: Estatutuak kontzesioak dira. Tolerantzia piska batekin konpontzen da: bereriztasunok toleratu egiten dira, agoantatu, eta ahal den moduan, ahal den gehiena, "normaltasunean" integratu. Sobe- rano eta beregain, kontzesioa egiten duena da; normal, kontzesio behar- ez duena, da. Kontzesioak hartzen di- tuena, ez normal eta ez bere buruaren jabe da, goiko haren tolerantzen dioen neurrian baino.

Horixe da, era batetan ala bestetan, Euskal Herriak eta Aginipide zentra- lak aspaldian dakarten hauzia. Zer dira Foruak: Erregek emaniko pribi- lejoak ala euskaldunen autogobernu? Ertabaidatzen dena, ez da gertakizun historikua, soberani printzipioa baino.

Euskal Herriak, aldian aldiko mo- dura, eta ahal zuen eta zekien gisan, beti horretan insistitu du: bere sobe- rariaren baitespenean. Foruak, esango dute karlistek eta foralistek, ez dira Erregek emanak: bere-bereak ditu Euskal Herriak. Haik Euskal Herriari kentzeko eskubiderik ez du inork. Eta hori esaten zutenean, harmaz ala le- tratz esan, historiari aitzertzen baino gehiago printzipio bat afirmatzen ari ziren.

Yandiola bizkaitarrak, Napoleonen aurrez-aurre, Bizkaiaren izenean pro- testa altxatu zutenean, Baiakoa Asanbladan, beharbada ez zuen egia historikua zuzen-zuzen adierazten, baina oso zuzen adierazten zituen eus- kaldunen konzentzia historikua eta politua: "Desde la más remota anti- güedad o más bien desde su primitivo origen ha existido Vizcaya separada del gobierno general de España con constitución y leyes propias, y aún después que por heredamiento se han visto reunidos en una misma persona la Corona de España y el Señorío de Vizcaya, se ha observado el mismo sistema sin confusión alguna..."

Yandiola baino askoz lehenago bu- Yandiola baino askoz lehenago bu- rutu zen "Pakto teoria" deitzen du- tena Gipuzkoan eta Araban, XVI-gn mendearen hain zuzen: euskal probint- ziaik itun edo pakto bat eginez lotu omen zitzaizkioa Gaztelako erre- nuari; hau da, beren soberania, beren jabe eta gaintasuna, inoiz galdu gabe. Se non e vero e ben trovato Inon ez da paktoaren agiria agertu. Baina, a- ger- tuko balitz ere, interesgarri litzateke, bai, dokumentu diplomatiko eta his- torikuo bezala; eta garai hartako eus- kaldunen konzentzia ezagutzeko ha- laber; baina ezin genezake pentsa, Euskal Herriaren nortasuna eta bere- gaintasuna pakto haren oinarritzen eta legitimatzen dizkigunik. Pakto haren- balioa Euskal Herriaren beregaintasun- ak legitimatzeak eta ez alderatzat. Euskal Herriaren nortasuna ez du; behialako faktoren batek oinarritzen; a Euskal Herriaren eskubideak ez dira

JOXE AZURMENDI
Pentsalari, idazle eta euskaltzain

papereen batek emanak.

Eta esan beharrik ere ez dago, XIII- gn edo XVI-gn mendearen, soberania nola edo hala praktikatzeko bazen ere, praktikatu, inork ez zuela egingo mo- duan ulertzen, soberaniaren printzi- pio gisa, guzi honen egungo esan- nahian.

Euskal Herriak bere buruaren jabe eta nagusi sentitu du bere burua. "Nación separada", esaten zioten Biz- kaiari Errege Katolikuek 1491-ean; "separada del gobierno general de Es- paña con constitución y leyes pro- pias", ulertzen zuen Yandiolak 1808- an. Karlistek eta foralistek indepen- dentzia forala defendatu zuten XIX- gn mendearen. "Que Vizcaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libre- mente", eskatzen zuen Sabin Arana Goirik.

Bizkaitatik beste muturrean, Nafarroa zaharra. Beti enpatinu dela, bera erreinu bat aparte dela. "Es reino distinto en territorio, jurisdicción, jueces y gobierno, de los demás reinos del rey de España" (No- visima Recopilación, 59-gn Legea).

Historiak, halare, historiari dira. Guk ez dugu antzinate hartara itzuli nahi, dirudienez Aranak eta Kanpio- nek amets egiten zuten moduan. Fo- ruak galdu berri zirenean, atzera Fo- ruak nahi ziren. Orain, Foruak zer zi- ren ere gehienbat ahazturik, Foruak berak baino gehiago, Foruei beren balioa ematen ziena, eskatzen dugu beti ere: Euskal Herriaren soberania, beregaintasuna eta berjabetasuna.

Abertzaleak historia aipatu ohi ditu. Aspaldianiko polemika luzeen ondarea dugu hori, ehun urte pole- mika alferretan aritu eta polemika gu- zirik probetxurik batere ekarri ez digu- ten arren.

Halare abertzaleak arrazoi du. His- toria ez da gure eskubideak demo- stratzeko: historiak ez du inoren esku- biderik demostratzen, gureak bezain guti besteekin. Eta gure historiak, ezer demostratzekotan, gure kalami- tateak demostratzen ditu. Baina, hain- beste nahaspila eta katramila erabili ondoren, kaxoa non dagoen ikusteko bakarrik bada ere, historiari begirat- zen diogu.

Historiatik ez dugu gehiago behar. Handik aurrerakoa gure kontua da: ia guk ere, gure interesak, berjabetasun- arekin eta berjabetasunaren izenean defendatu nahi ote ditugun.

Ez dira guti, Euskal Herriaren be- regaintasuna printzipialki onartuaz ("autodeterminazio eskubidea" esan ohi diote orain), ez lukela berjabe bihurtu behar esaten dutenak. Ez dira guti eta "arrazoi botereitsuak" omen dituzte gainera.

Guk, arrazoi guziak oso errespetat- zen ditugunez, eta "arrazoi botere- tsuak" are gehiago, konprenitzen dugu, Euskal Herriak "libreki" bere- gaintasunari eta bere jabetasunari re- nunziatez erabakitzen badu, bere bo- rondatzez erabakirik, berjabetasuna eta beregaintasuna praktikatzeko modu bat litzatekeela hori ere. Hau da, ulertzen dugu, independentzia es- kubidearen alde egon litekeela, inde- pendentziaren kontra egonez (dibor- ziatzeko eskubidearen alde egon lite- keen moduan, mundu guzira diborzia dadila nahi gabe). Bakarrik, posizio si- bilinu zuhur horiek situazio batzuetan ez dutela balio gehiagorik, iruditzen

zaigu, metafisikak haginetakoa mina- rentzat baino. Teoria hori daukate- nek, berek ikusi beharko dute, usteok nola legitimatzen dituzten. 1. Euskal Herriaren egoera larririk, eta 3. Estatu honetan dominante diren beste usteekin, alderatuaz eta neurtuaz.

Izan ere, situazio honetan, hots, Euskadi dagoen bezala, eta gure his- toriarekin, eta nagusi dabilen ideolo- giarekin, autodeterminazio eskubide- ari modu horretan onerizteak ala gait- zerizteak, ondorio berberak dituela, ematen du, praksian.

Pentsamolde dominantea zein eta nolako izan, hari buruz eta harekiko erreferentzia taxutu behar izaten bait dute beste guziek. Pentsamolde dominantea, oster, ez orain bakarrik, ia berrehun urte honetan baino, Eus- kal Herriaren autodeterminazio esku- biderik ez teoriat eta ez praksian onartzen duena da, izan. Hari prak- sian arrazoi ematekotan, ez dakigu zenbait balio duen, teoriam eman nahi ez izatea. De fakto, zuzen-zuzenean ez bada zeharka, teoriam ere arrazoi ematen diotela, ikusten dugu: XIX-gn mendez eta liberalen obra "progre- sistaz" dihardutenean, adibidez.

Ondo baino hobeto konprenitzen dugu, Georgian edo Ukrainan esate baterako, burgesia jo ta ke burrrukan ari bada nazio independentziaren alde, proletargoak bere erara postura

hartzea: "demokrata gisa, eskubide aitoritzen dugu, aitoritu, baina gu- ez gaude independentziaren alde", hots, burgesiaren jomugaon alde.

Baina, hemen, Euskal Herriaren berjabetasuna beti zanpatu dute, eta orain ere zapaldu nahi luketela oligarkia eta burgesia dira.

Horiek, hemen, ez dute inoiz be- independentzia fiskala besterik nahi izan. Horiek ez dute sekula Eus- kal Herriaren inolako berjabetasuna nahi izan. Abertzale badira, omen direnez, abertzale fiskal- izango dira, noski... Eta horiek ino- satu duten ideologia, Godoy eta rentez gero gutienez, beti berdina, euskal berjabetasunik ez dagoela azken finean, Euskal Herriak ere dagoela. "Jamás en la Historia ha formado las Provincias Vascongas una región!". Horiek, ahal zuten- tean, ez Estatuturik eta ez lau- ta nahi zuten. Besterik ezin dutenean, beste erremediorik ez dagoenean, ez- tatutua toleratzen badute, eta Eus- kal Herria aintzat hartzen dutela, Arrazoiez esan bait liteke: horiek dote Euskal Herriaren problema, lu- zio eman nahi; ETA-ren problema, eman nahi diote soluzio. Eta ber- ere, Euskal Herriak eta euskal be- gaintasunik ez balego bezalaxe, Eus- kadiko Seinorio batzu nahi litzuke Nafarroa handik, probintziok hama- dik, ahal balitz probintziok ere, na- ka... eta enplastu batekin enplas- diatu nahi dute asuntua, Etxebarria Txiki eta beste denak enplastu ba- gatik hil balira bezala.

CARTAS AL DIRECTOR

Las mujeres y el tiesto

Estimado Sr. Director:

Le envío un comunicado de un grupo de mujeres ante el mitin celebrado en San Sebastián, con ocasión de la llegada de la Marcha de la Libertad de Euzkadi.

Las mujeres meamos fuera del tiesto.

¿Quién ha fabricado el tiesto? ¿Quién es el propietario, quién el usufructuario, quién el legiferante, quién el que decide cómo, dónde, cuándo y a qué hora "se puede" o "no se puede" satisfacer esta necesidad natural si se es mujer?

Somos inoportunas, molestas, reticentes, reiterativas, agobiantes, pelmas a morir de asco, rollistas y "coñazas (sic)".

Pero ¿acaso algún tribuno de varonil configuración y sexo ha adoptado, motu propio, alguna vez en la muy masculina historia que aún vivimos, algunos de nuestros lemas más apremiantes? ¿Alguno ha empleado a fondo su hombría de bien, su masculino empeño, su humana sensibilidad, su varonil audacia para expresar, indignado, su más viril repulsa ante la discriminación de la hembra? ¿Es que alguno se acuerda que existimos, que somos más de la mitad de la población, que tenemos una problemática propia, una bandera propia que reivindicar, una triple explotación que sacudir (en la mayoría de los casos), una mordaza de siglos que arrancar distinta de la esporádica que enmudece al hombre?

En todos los partidos políticos hay mujeres ¿dónde? En la intendencia, en el pelotón de tropa, en la más recóndita retaguardia, zurciendo los calcetines de los camaradas, cuidando sus hijuelas ideológicas y carnales,

pasándole el borrador a limpio, cuando al líder, adivinando sus casi inconfesables. ¡Oh, ternura mi- nina! ¿Qué sería de vosotros, de de severa frente, sin ella? ¿Sin los dados del bello sexo, sin la forja del sexo débil, sin la paz del género sin la sumisión del cuerpo ajeno?

¿Dado (cuidado con las iniciativas) En todos los partidos políticos programas, y, en ellos, al final, al rincón de los objetos inclassificables entre los desarreglos ecológicos, zonas verdes, el mundo de los normales, retrasados mentales y políticos cerebrales, a caballo entre desastres goyescos y la lucha anti- sumista, hélo allí: el problema de mujer. Había que ponerlo ¿Dónde se ha visto un programa no incorpore "eso"?

Pero, por lo visto, aún quedan cosas que se olvidan de este detall "mono".

Aún quedan pitecantropes en- bravos antropopitecos, mazo entre, que velan con ardoroso celo la "libertad de expresión" del big macho, a la vez que tildan de "minoritario" a aquella avanzadilla la mitad de la sociedad que quiere abrir la boca y exhalar su propio culiar grito de protesta.

Y ocurre hasta en las mejores li- lias y en las más bellas iniciativas.

Porque, claro, ¿qué puede haber que decir una mujer vasca de parti- lar y propio sobre temas tan se- como Amnistía/Autonomía?

Y si tiene algo que decir, que se- lle, que para eso están los partidos lí- liticos y otras vainas para hablar- ella:

CASAND

DEIA

Editor: Iparaguirre, S. A. - Depósito Legal: B-1679/1977

Presidente del Consejo: Luis María Retolaza. - Consejero-delegado: José María Gorordo. - Director: Ignacio Iriarte

Subdirectores: Alfonso Ventura, Martín Ugaldé y Félix García Olano. - Redactores jefes: Manuel Igarreta y Fernando Múgica

Política: José María Otegui, Adolfo Roldán y Oña Benarrieta

Sociedad y Cultura: María Jesús Guadalupe, Javier Cortés, Florencio Martínez, Juan A. Zubizarra y Luis Aramburi

Reportajes: Beatriz Iraburu, Vicente Escudero, Ignacio Agreda, Blanca Rodríguez, Maki Álvarez, José Ramón Epelde y J. M. Mendizábal

Deportes: José Manuel Alonso, Juan José Baños y Fernando Castro. - España: David Barbero, Angel Zubiete y Juan Carlos Ramírez. - Mundo: Jesús Góti y María Luisa Idote

Cine: Félix Múgica, Javier Urrutia. - Economía: José María Urquiza

Ciudad y Viajes: Javier Retegi. - Diagramación: Alberto Torregrosa, Aurelio Garrote, Almudena Arce y Angel Vadillo

San Sebastián: Javier de Aramburu, Roberto Pastor, Pedro Gabilondo, Eduardo F. Ortuzar, Carmen Alonso, Mikel Atxaga, Miren Jose Azurza, Mañu de la Puente y Jesús Peña

Pamplona: José A. Montón, Fermín Góti, Paco Egor, Jorge Nagore y Nicolás Alda

Vitoria: Ana Garbál, Lourdes Bermejo, Javier Sainza, Luis Carrusta y Gloria Knorr

Madrid: Miguel Mocer y Kepa Bortegay

Director Financiero: Ignacio Nolte. - Director comercial: Juan Arieta. - Director técnico: José Luis Bilbao

Jefe de Publicación: Javier Egurrola. - Agente a la Dirección General: Iñaki Etxebarria. - Director de Apoyos: Jesús M. Eizmendi

Servicio Informativo: EFE, United Press International, Europa Press, Cifra, Logos y AIFI